

| | | |
|----|-----------------------|--------------------|
| 12 | JARDUERA ACTIVIDAD | ADIBIDEA MODELO |
| | garapena desarrollo | 12.1 |

📌 HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EREMUA

Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua

📌 HELBURUA

1. Ikastetxearen barne- zein kanpo-harremanetan euskararen presentzia handitzea

| Helburu zehatzak | Jarduerak | Arduraduna(k) eta denbora-epeak | Parte-hartzaileak | Giza-baliabideak eta baliabide materialak | Ebaluazioa | |
|---|--|---|--|---|---|---|
| | | | | | Jarraipen-adierazleak [onartze-maila] | Lorpen-adierazleak [onartze-maila] |
| 1.1. Familien inplikazioa handitzea euskararen erabileran. | 1.1.1. Tutoretza-bileretan, ohiko gai gisa hartzea euskararen garapenean familiaren inplikazioak duen garrantzia. | Ikasturtean zehar, bilera guztietan → <i>Tutoreak familiekin</i> | Tutore guztiak | · Gai horri buruzko artikulua | Aurreikusitako jarduerak egin dira [%75] | Familia erdaldunek oinarrizko zenbait esapide erabiltzen dituzte euskaraz ikastetxean: agurrak, galderak... [%50] |
| | 1.1.2. familiekin egingo diren bileretan hizkuntzak erabiltzeko protokoloa idaztea. | Lehenengo hiruhilekoan → <i>Hizkuntza Proiektuaren batzordea</i> | Hizkuntza Proiektuaren batzordea Klaustrokideak | · Protokoloa | Protokoloa egin da. [Bai/Ez] | Protokoloa erabili da familiekin egin diren bileretan. [%100] |
| | 1.1.3. Sentsibilizazio-lana familiekin, gizartean presentzia urria duen hizkuntzan egiten diren ekimenetan euren parte-hartzaileak duen garrantziaz jabetzeko. | Lehenengo hiruhilekoan → <i>Zuzendaritza-taldea</i> | Zuzendaritza-taldea eta tutoreak Familiak | · Sentsibilizazio-jarduera diseinatzeko baliabideak eta osagaiak · Artikuluak, irakurgaiak | Aurreikusitako jarduerak burutu dira [%75] Aurreikusitako epean egin dira [Bai/Ez] | Familien partaidetzak gora egin du euskarari lotutako jarduera eta ekimenetan. [%50] |